

PINTURA

Guadalupeko Ama Birjina

Guadalupeko Ama Birjinaren irudi hau Santiagoren kaperako erretaula nagusiaren buru izan zen, alboko kaleetan Asisko San Frantziskoren eta Paduako San Antonioren mihiseak zituela. Erretaula Francisco Antonio González de Echavarririk 1773an utzitako ondareari esker egin ahal izan zen. XIX. mendearen amaieran, berrikuntzak egin ziren kaperan, eta pintura prebisterioko epistolaren aldean jarri zen.

Tradizioaren arabera, Ama Birjina Juan Diego indigenaren aurrean agertzean haren *ayate* oihalean modu miragarrian inprimatuta geratu zen irudian oinarrituta moldatu zen Ama Birjina beltzaren honen irudikapena. Eredu hori egonda, erreplika bat egin nahi zuen margolari orok jatorrizkoa errespetatu behar zuen, baita ezarritako neurrietan ere. Ohikoa denez, Ama Birjina eguzki-izpidun mandorla baten barruan agertzen da. Zutik irudikatuta dago, muturrak goraka dituen ilargi-erdi baten gainean, aingerutxo bat, hegalak zabalik, idulki gisa duela. Jarrera hieratiko samarra du, burua koroatuta, begiak apal, eskuak otoitzean elkartuta. Tunika gorri bat darama, urrezko brokatu joriduna, eta mantu urdin bat, urre-koloreko izarrez apaindua eta mendel batez inguratua. Oihalaren behealdean, hau jartzen du: "TOCADA A SU ORIGINAL", artistak, basilikara joan, eta, sagaratzean, margolanarekin jatorrizko mihisea ukitua zuela fede emateko. Obra honek gozotasuna, proportzioen harmonia eta soiltasuna gehitzen dizkio konbentzionalismo tematikoari, halako arrasto neoklasiko batez gainera. Mihiseak esku-hartzeren baten aztarnak ditu, seguru asko gaur dagoen lekura eraman zutenean egindakoak: berrehunduta dago eta eranskin bat dauka goiko aldean. Itxura guztien arabera, birpinturak ere baditu, irudia inguratzen duten hodeien artean bederen.



Egilea: Anonimoa

Data: c. 1773

Teknika: Olio mihisean

Neurriak: 194 x 121 cm

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz). Santiagoren kaperan. Egungo Santa Maria eliza



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. “Catedral de Santa María (catedral Vieja)”. En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III. 1968, p. 113.

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R. “El legado de don Francisco Antonio González de Echávarri (1700-1774) a la capilla de Santiago de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz”, *Akobe. Restauración y conservación de bienes culturales*, 9, 2008, pp.13-23.




Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz